



## ANTENAS DE TELEFONÍA MOVÍL TELÉFONO MUGIKORREN ANTENAK

HOJA 1.

### PRENTSA-OHARRA

#### ERMUA HIRIKO UDALAK BERTAN BEHERA UTZI DU BETI ONDON TELÉFONO MUGIKORREN ANTENAK INSTALATZEKO LIZENTZIEN EMAKIDA

Ermua Hiriko Udalak eten egin du momentuz Teodoro Zuazua futbol-zelaian eta Beti Ondoko Kirol Gunean telefono mugikorren bi antena instalatzeko Telefonica Moviles eta Vodafone S.A. enpresek eskatutako lizentziaren emakida.

Aipaturiko bi enpresek obrak egin ahal izateko udal administrazio honi eskatutako lizentziaren ondorioz zabaldutako espedientearen jendaurreko informazioaldian dago egungo egunean, horregatik alkatetzak azterketa tekniko espezializatu bat eskatzea erabaki du, udalerrian ekipamendu hori instalatzeko kokagunerik egokienak zein diren argitzeko.

Erabaki horren helburua herritarren osasuna azken ondorioetaraino zaintzeko eta mota horretako instalazioek sor dezaketen inpaktua ahal den neurrian baloratzeko Udalak hartu duen etengabeko konpromisoa betetzea da, aldi berean Ermuak garapen sozioekonomikoaren eta telekomunikazioen eremuan teknologia berrien trena ez galtzea ahalbidetuz.

Instalazio honek, gai honen eta bere eragin eztabaidagarriaren inguruko azterketak egiten dituzten Osasunaren Mundu Erakundea edota Industria Ministerioa bezalako erakundeen oniritzia eta bermea badu ere, kokagunerik egokiena zein den erabaki arte, eta holako instalazioak jartzea baimentzeko zein baldintza bete behar diren zehaztu aurretik, beharrezko denbora guztia hartu beharra dagoela erabaki dugu.

Bestalde, hiritar guztiei jakinarazi nahi diegu, indarrean dagoen legedia bete eta gure auzokideen osasunarentzat inolako arriskurik ez sortzeko funtsezko printzipioei jarraitzea izan dela gure asmoa, eta aurrerantzean ere horrela jarraituko dugula.

Ermuan, 2007ko martxoaren 28an